| PASAIAKO UDALA<br>UDALTZAINGOA | **Espediente zk.** / N.º expediente: **2025UOST0001** | |
|---|---|---|
| | **Sarrera-erreg.** / Reg. de entrada: | - 000000 |
| | **Titularra** / Titular: | PASAIAKO UDALA |
| | **Ordezkaria** / Representante: | |
| | **Gaia** / Asunto: Ostalaritza establezimenduen ordutegi luzapena- Ampliación horaria de establecimientos hosteleros | |

## EBAZPENA

UDALTZAINGOA Saileko arduradunak txostena egin du, eta eskatu du Pasaiako udalerriko jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako establezimenduen itxiera-ordutegiak luzatzeko 2025/01/01(e)tik 2025/12/31(e)ra bitarte, honako arrazoi honengatik: ostalaritza-establezimenduen ordutegia zabaltzea jai-ekitaldien arabera.

Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren, abenduaren 23ko, 10/2015 legearen 18.2. artikuluan honako hau ezartzen da: Eusko Jaurlaritzak ezarriko du zein den establezimendu publikoen ordutegi orokorra, oreka zainduz dibertsiorako eta aisialdirako jarduera legitimoen eta enpresariek bere jarduera egiteko duten eskubidearen eta herritarren atsedenerako eta lasaitasunerako eskubidearen artean, eta kontuan hartuz, besteak beste, nolakoa den establezimendua, ikuskizuna edo jolas-jarduera eta zer urtaro edo urte-sasoi den, eta hark ezarriko ditu ordutegiaren luzapenak edo murrizketak ere.

Era berean, artikulu horren hirugarren atalean ahalmena ematen zaie udalei jaiegunetan edo bestelako gertakizunetan establezimenduen ordutegi orokorra luzatzeko, arau bidez aurreikusitako egoeretan eta moduetan.

Legean jasotako aurreikuspenak garatze aldera, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak 37. artikuluan arautzen denez, udal-agintariek gehienez bi orduz luzatu ahal izango dute ixteko aurreikusitako ordutegia, honako arrazoi hauengatik:

- Udalak berak edo autonomia-erkidegoko erakunde eskudunak jai-giroko edo interes turistikoko sailkatutako

## RESOLUCIÓN

Visto el informe emitido por el/la responsable del departamento GUARDIA MUNICIPAL en la que se solicita la ampliación de horarios de cierre de los establecimientos de hostelería del Municipio de Pasaia para los días 01/01/2025 - 31/12/2025 con motivo de ampliación horaria de establecimientos hosteleros por eventos festivos.

Considerando que la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, establece en el articulo 18.2 que El Gobierno Vasco determinará el horario general de los establecimientos públicos, preservando el equilibrio entre las legítimas actividades de diversión y ocio y el derecho de los empresarios a ejercer su actividad con el derecho de los ciudadanos y ciudadanas al descanso y la tranquilidad, así como atendiendo, entre otros factores, a la naturaleza del establecimiento, espectáculo o actividad recreativa y la época o estación anual, así como sus ampliaciones o restricciones.

Teniendo en cuenta a su vez, que en el apartado tercero del citado artículo se faculta a los ayuntamientos para establecer ampliaciones al horario general de los establecimientos con motivo de fiestas y otros eventos, en los supuestos y formas que reglamentariamente se prevean.

En desarrollo de las previsiones contenidas en la Ley, el Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas, regula en su artículo 37 que las autoridades municipales podrán ampliar con un máximo de dos horas el horario de cierre previsto con ocasión de:

- Eventos calificados como festivos o de interés turístico por el propio ayuntamiento o por el órgano competente de la

ESKUef1a5759-6a8d-47f5-9d4a-81e631fa598f

ekitaldiak, hala nola ospakizun publikoak, auzoetako jaiak, gizarte- edo azoka-izaerako gertaerak, lehiaketak, erakusketak eta tankerako bestelakoak, urte naturaleko gehienez ere hamabost eguneko mugarekin.

- Herriko festak, udal bakoitzak bere udal-mugarterako ofizialki ezarrita dauzkanak.

- Aste Santuko ostegunetik astelehenera bitartean, inauterietako ostegunetik asteartera, eta abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra Eguberrietan.

Comunidad Autónoma, tales como celebraciones públicas, fiestas de barrio, acontecimientos de carácter social, ferial, certámenes, exposiciones u otros análogos, con el límite máximo de quince días por año natural.

- Fiestas patronales, entendiendo por tales las establecidas oficialmente por cada ayuntamiento en su término municipal.

- De jueves al lunes de Semana Santa; de jueves a martes en Carnavales, y desde el 15 de diciembre al 6 de enero en Navidades.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, udalek, era berean, ordutegi orokorra luzatu ahal izango dute gehienez ere bi orduz eta urte naturaleko hamabost eguneko gehieneko mugarekin, artikulu honen 1. apartatuko a) letran aurreikusitakoen tankerako inguruabar aparteko eta ezohiko gerora sortutakoen arabera.

Además, los ayuntamientos podrán, asimismo, ampliar el horario general con un máximo de dos horas, con el límite máximo de quince días por año natural, en función de circunstancias sobrevenidas de carácter excepcional y no habitual referidos a eventos de similar naturaleza a los contemplados en el apartado a) del párrafo 1 del articulo 37.

Auzoetako jaien edota udal-mugartean definitutako lurralde-eremu baten barruan mugatutako bestelako gertaeren kasuan, udalak zehaztu ahal izango du ordutegi berezia udalerriko lurralde-eremu jakin horretarako dela.

En el caso de fiestas de barrios u otros acontecimientos circunscritos a un ámbito territorial definido dentro del término municipal, el ayuntamiento podrá determinar que el horario especial se refiera a ese concreto ámbito territorial del municipio.

Udaltzaingoko arduradunak 2025/02/27(e)an txostena egin zuen.

Visto el informe-propuesta de resolución emitido el 27/02/2025 por el responsable del Departamento de la Policía Local.

UDALTZAINGOAren arloko arduradunak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta, eta ordenamendu juridikoak eta, bereziki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

Con base en la propuesta de resolución emitida por el responsable del área de GUARDIA MUNICIPAL, y en uso de las atribuciones que me confiere el ordenamiento jurídico y en especial el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

Lehena.- Onartzea Pasaiako jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako establezimenduen itxiera-ordutegia 2 orduz luzatzea, 2025eko egun hauetan:

Primero.- Aprobar la ampliación de 2 horas del horario de cierre de los establecimientos de espectáculos públicos y actividades recreativas de Pasaia, para los siguientes días del año 2025:

ESKUef1a5759-6a8d-47f5-9d4a-81e631fa598f

| EGUNA / DÍA | ARRAZOIA / MOTIVO | BARRUTIA / DISTRITO | LUZAPENA / AMPLIACIÓN |
|---|---|---|---|
| Otsailak 28 eta martxoak 1 | Inauteriak | Antxo<br>San Pedro<br>Donibane | 06:00 |
| Martxoak 7 eta 8 | Inauteriak | Trintxerpe | 06:00 |
| Maiatzak 23 eta 24 | Meipiko jaiak | Meipi auzoa | 04:30 |
| Ekainak 23 | San Joango jaiak | Donibane | 06:30 |
| Ekainak 27,28 eta 29 | San Pedroko jaiak | San Pedro | 06:30 |
| Uztailak 4, 5 eta 6 | San Fermingo kaiak | Antxo | 06:30 |
| Uztailak 11, 12 eta 15 | Karmenak | Trintxerpe | 06:30 |
| Uztailak 24, 25, 26, 27 eta 30 | Santioak | Donibane | 06:30 |
| Irailak 19 eta 20 | Pabloeneako jaiak | Pabloenea auzoa | 04:30 |
| Irailak 26 eta 27 | San Fermin txiki<br>San Pedro txiki | Antxo<br>San Pedro | 04:30 |
| Abenduak 24 eta 31 | Gabonak | Pasaia osoa | 06:00 |

Bigarrena.- Ebazpen honen berri ematea Udaltzaingoari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Segundo.- Comunicar la presente resolución al departamento de la Policía Local para su conocimiento y efectos.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzari jakinaraztea.

Tercero.- Comunicar la presente resolución a la Dirección de Juegos y Espectáculos del Gobierno Vasco.

Laugarrena.- Ebazpen hau udalaren iragarki-taulan argitaratzea.

Cuarto.- Publicar la presente resolución en el tablón de anuncios municipal.

Pasaian, sinadura elektronikoaren datan / En Pasaia, a fecha de firma electrónica

Teo Alberro Bilbao

**Alkatea** / El alcalde



EKS | CSV: ESKUef1a5759-6a8d-47f5-9d4a-81e631fa598f
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06410*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2025UOST0001-Ebazpena - ofizioz/Resolución - de oficio (PASAIAKO UDALA) |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

PASAIAKO UDALA

**Alberro Bilbao, Teo**
**Alkatea**
**Data:** 2025/02/27 14:29:06